

Quercus robur

Roble

Itxura orokorra

Hosto erorkorreko zuhaitz handia, 40 metroko altuerara iristen dena, enbor zuzen eta adaburu zabal eta erregularrekoa.



Hostoak

Hosto handiak, sinpleak, txandakatuak; ilerik gabeak. Gainaldean kolore berde bizikoak eta zurbilagoak, ondo markatutako nerbioekin azpialdetik; lobulu aldakor eta biribilduak azaltzen ditu.



Loreak

Apiriletik maiatzera loratzen da haritza. Lore maskulinoak taldean hazten dira, mahats-mordo zintzilikariak osatuz, eta femeninoak pedunkulu luze baten puntan, estalki ezkatatsu arre-gorrixka batez inguratuta.



Fruituak

Haritzaren fruituak, ezkurak, iraila eta urria biatrtean heltzen dira, eta txorten luze baten puntan hazten dira.

